

Uztaritze USTARITZ



10. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA
BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°10
URTARRILA 2019 / JANVIER 2019

www.uztaritze.eus

BONNE ANNÉE !
URTE BERRI ON !



SAR HITZA / MOT DU MAIRE

HIRIGINTZA / URBANISME

Divers / Orotarik	4
Accessibilité / Irisgarritasuna	5
Travaux réalisés ces derniers mois	6
Azken hilabeteetan egin obrak	7
Cœur de quartier d'Heraitze / Heraitze auzo bihotza	8
Uztailaren 16ko uholdeak / Inondations du 16 juillet	9

HIZKUNTZA POLITIKA / POLITIQUE LINGUISTIQUE

Uzta Hitzan	10
-------------------	----

HEZKUNTZA / EDUCATION

Contrat Enfance Jeunesse / Haurtzaro Gaztaroa Kontratua	12
3 eskola publikoak / Dotation en matériel des 3 écoles publiques	12
Modification du mode de facturation du service de restauration scolaire	13
Eskola jantegiko zerbitzua fakturatzeko moldearen aldaketa	13
L'école Idekia a ouvert sa première classe bilingue	14
Idekia eskolak bere lehen gela elebiduna ireki du	14

ELKARTEAK / ASSOCIATIONS

Une cavalcade pour les 50 ans d'Izartxo	16
Kabalkada Izartxoaren 50. urteen karietara	17
Deuxième semestre festif pour la commune	18
Lehen mundu gerla, artearen eta kulturaren bitartez	19

AGENDA 21

Extinction nocturne de l'éclairage public / Gauaz herriko argien itzaltzea.....	20
La fête de la nature / Izadiaren besta.....	21
Jardins fleuris / Baratz loratuak.....	22
Forêts affouages / Oihanetako egur esleitzea.....	23

GIZARTEA / SOCIAL

Ateliers seniors Connect64 / Seniors Connect64 tайлerra	24
Semaine bleue à Uztaritz / Aste urdina Uztaritzen	25
Des aides pour l'amélioration de l'habitat.....	26
Bizitegiak hobetzeko laguntzak	26

TOLOSAREKIN SENIDETZEA / JUMELAGE TOLOSA

27

FINANCES / FINANTZIAK

Cour Régionale des Comptes / Eskualdeko Kontu Auzitegia	28
---	----

OPOSIZIOA / OPPOSITION

Ustaritz avec Bon Sens	29
Unis à Gauche	30
Aimer Ustaritz	31

EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL

32

AURKI BIDEA / SOMMARE



Bruno
CARRERE
Auzapeza / Maire

Uztaritztar maiteak,

2019 urte honetan ere ondoko berripaperean zehaztuak zaizkizun ekimen eta proiektu anitz abian emanen da, baina urte honetarako aurreikusi dugunari buruzko oinarrizko informazioa ere hemen laburki aipatzea egokia dela iruditu zait.

Lehenik, hondamendi natural gisako aitortza ukana zuen iragan uztailaren 16ko tenestak eragin zituen kalteak konpondu beharko ditugu. Gure zerbitzu teknikoek eginahal handiak eginik ere, bide anitzetan egin beharreko lan handietarako zerbitzu emaileengana jo beharko dugu.

Zerbitzu teknikoetako langileak erakutsi duten inplikazioagatik partikularki eskertu nahi ditugu.

2019 urtea finantza mailan ere markatua izanen da, Euskaldeko Kontuen Ganbarak eginen duen 2012tik 2015era arteko herrien kontu ikuskatzearekin. Txostenak maiatz-apirilean iraganen den Herri Biltzarraren ondotik publiko izan beharko luke.

Urte berri hau, uztaritzarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen aldaketa handiek azkarki markatuko dute:

- Karrika garbigailu bat eta gidari berezitu baten kontrataztea. Gisa horretan, Herriko Zentro Teknikoan herriaren garbitasunari dedikaturiko talde bat ukanean dugu.
- Herriko etxeko zerbitzuak Lapurdira lekualdatzeko azterketaren eta lanen finitza. Lekualdatze hori, zerbitzu desberdinek herritarrei eskaintzen dieten harreraren inguruko funtsezko hausnarketarekin batera egiten ari da.
- Mugikortasunaren hobetza Euskal Hirigune Elkar-goko zerbitzuekin elkarlanean:
 - Udazkenean hobekuntza, autobus bidezko garraioaren dentsifikatza.
 - Abenduan: trenbideetako garraioaren erregulatasunaren berrikustea.

Kultur aktibitateak ere bere lekua ukanean du, ohizko ekimeñeい gehituko zaizkien Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoaren 2 kontzerturekin.

Bestalde, 2019 urtean Tolosarekin den senidetzearen hogeita hamargarren urtea beteko dela eta, bi herriek jadanik gure agendetan bere tokia duen trukatze horri dirdira berezia eman nahi diotela azpimarratzea garrantzizkoa da.

Denei 2019 urtea biziki ona izan dadin opa dizuet eta ez dudarik izan herriko etxeko taldeak lanean kartsuki segituko duela.

Chers Uztaritztar,

Cette année 2019 sera encore riche en évènements et projets qui vous sont détaillés dans la suite du bulletin, mais il m'a semblé opportun de résumer ici l'essentiel de ce qui est prévu pour cette année.

Il nous faudra d'abord réparer les dégâts occasionnés par la tempête du 16 juillet dernier, reconnue catastrophe naturelle. Malgré tous les efforts de nos services techniques, il sera toutefois nécessaire de faire appel à des prestataires pour réaliser des travaux d'importance sur de nombreuses voiries.

Nous tenons à remercier particulièrement les agents des services techniques pour leur implication.

2019 sera également marquée sur le plan financier par l'audit des comptes communaux de 2012 à 2015 réalisé par la Chambre Régionale des Comptes. Le rapport devrait être public après sa présentation au Conseil Municipal aux environs de mars-avril.

Cette nouvelle année sera surtout très fortement marquée par de forts changements dans le service aux Uztaritzar :

- Achat d'une balayeuse et recrutement d'un conducteur spécifique. Nous aurons ainsi une équipe dédiée à la propreté urbaine au sein du Centre Technique Municipal.
- Finalisation de l'étude et premiers travaux pour le déménagement des services de la mairie à Lapurdi. Ce déménagement est accompagné d'une réflexion de fond sur l'accueil des administrés par les différents services.
- Amélioration de la mobilité en collaboration avec les services de la Communauté d'Agglomération Pays Basque :
 - A l'automne amélioration, densification de la desserte par bus.
 - En décembre : cadencement revu pour la ligne ferroviaire.

L'activité culturelle ne sera pas en reste avec 2 concerts de l'Orchestre Symphonique du Pays Basque qui s'ajouteront aux nombreuses manifestations traditionnelles.

Il est également important de souligner que 2019 est l'année du trentenaire du jumelage avec Tolosa et les 2 communes souhaitent donner un éclat particulier à cet échange qui est désormais ancré dans nos agendas.

En vous souhaitant à toutes et tous une excellente année 2019, soyez assurés de la continuité des efforts de l'équipe municipale.

Dès le début du mandat nous avons enclenché plusieurs initiatives de gestion et utilisation de l'espace communal car plusieurs de ces fonctionnements étaient obsolètes ou absents.

Ces démarches arrivent à leur terme et permettront une gestion adaptée et durable de l'évolution urbaine de la commune.

PLU (Plan Local d'Urbanisme)

Le PLU précédent, en plus de ne pas être en adéquation avec la loi Grenelle, déclenchaît une escalade démesurée de constructions sur tout le territoire communal. Dès 2014 nous avons donc démarré l'élaboration du nouveau PLU. Ce type de dossier demande plusieurs années d'élaboration. En janvier 2017, la compétence dans ce domaine est passée sous compétence de la CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque). De nombreux mois ont été perdus dans cette transition, mais aujourd'hui, après l'arrêt prononcé par la CAPB en septembre, et avec l'enquête publique en cours, on peut espérer une fin de la procédure par l'approbation de ce nouveau PLU pour mi-2019.

RLP (Règlement Local de Publicité)

Le RLP a été lancé en 2015. Le précédent datait d'un quart de siècle. Passé sous compétence de la CAPB en janvier 2017, l'enquête publique a eu lieu en octobre 2018 et l'approbation a été votée en Conseil Communautaire en fin d'année. La commune a ainsi un outil juridique indispensable pour gérer les emplacements, la publicité, les pré-enseignes et enseignes et éviter les pollutions visuelles sur son territoire.

SIL (Signalisation d'Intérêt Local)

La SIL, qui concerne les activités commerciales, économiques et sites d'intérêt va également être mise en place dès début 2019. Aucun plan n'existe, nous avons donc lancé cette procédure en 2015 en parallèle et en cohérence avec le RLP. Les premières réglettes de signalisation prises en charge par la commune vont donc apparaître très prochainement.

SPR (Sites Patrimoniaux Remarquables, ancien AVAP)

Cette démarche, opposable au PLU, n'existe pas sur la commune. Elle permet la mise en

valeur et protection renforcée du patrimoine bâti et des espaces remarquables. Passée sous maîtrise de la CAPB, elle devrait aboutir dans les 2 ans à venir.

Schéma de Défense Incendie

Ce document permet de connaître l'infrastructure communale de la défense incendie et donc de palier les manques en termes de sécurité. Il vient d'être créé et intégré dans nos documents cadres.

Règlement de voirie

Ce règlement gère les occupations temporaires du domaine public et les travaux sur voirie communale. Il permet d'éviter les aléas trop nombreux faits par des tiers sur la voirie lors de travaux. L'ancien document étant obsolète car ne prenant pas en compte les évolutions réglementaires et l'évolution de la commune, le nouveau est d'ores et déjà applicable depuis plusieurs mois.

Schéma Directeur de Gestion des Eaux

Ce document n'existe pas, son élaboration a démarré dès 2014. Il doit permettre de déterminer et corriger les points sensibles impactés par les eaux de pluies. Les dramatiques épisodes connus, dont le dernier en date du 16 juillet 2018 (150 sinistrés), nous montrent que cette action est primordiale.

Le Plan Communal de Sauvegarde

Il permet d'assurer l'information, l'alerte, la protection et le soutien à la population par rapport aux risques naturels, technologiques ou sanitaires. Il est mis en place sous la responsabilité du maire pour organiser les acteurs communaux (élus, agents municipaux, bénévoles, entreprises etc...) en cas d'événements majeurs sur la commune.

Uztaritz, souvent touchée par des épisodes d'inondations et ruissellements n'avait pas de plan. Il a été mis en place le 22 février 2018.

Karguardiaren hastapenetik, herriko eremua kudeatzeko eta baliatzeko ekimen anitz abiarazi ditugu. Izen ere, egimolde anitz zaharkituak ziren edo eskas ziren. Egitasmo horiek bururatzen ari dira eta herriaren hirigintza bilakaera iraunkorra eta egokia izateko ahala emanen dute.

THP (Tokiko Hirigintza Plana)

Aitzineko THP, alde batetik, ez zen Grenelle legearen araberakoa, eta, bestetik, herriko eremu osoan etxeen eraikuntzaren gehiegizko igoera eragiten zuen. Ondorioz, 2014tik, THP berria moldatzen hasi ginen. Halako dosier baten moldatzeko urteak behar dira. 2017ko urtarrilean, arlo hau EHEren eskumenean pasa zen (Euskal Hirigune Elkargoa). Trantsizio horren ondorioz, hilabeteak galdu genituen; baina, egun, 2018ko irailean EHEk hartu deliberoaren ondorioz eta orain gertatzen ari den inkesta publikoaren ondorioz, 2019 erditutan prozeduraren bukaera eta THP berriaren onarpena gertatuko dela igurika dezakegu.

PTA (Publizitatearen Tokiko Araudia)

Publizitatearen Tokiko Araudia 2015ean indarrean sartu zen. Aitzineko araudiak mende laurdena zuen jadaneko. 2017ko urtarrilean, EHEren eskumenean pasa zen. 2018ko urrian, inkesta publikoa burutu zen. 2018 bukaeran, elkargoko kontseiluan onartu zen. Orain, herriak badu ezinbestekoa zaion tresna juridikoa. Publizitateen kokalekua, publizitateak, entseina taulak eta panelak kudeatzen eta herrian begi kutsadura sahesten ahal ditu.

TIS (Tokiko Interes guneen Seinaleak)

Tokiko Interes guneen Seinaleak 2019 hastapenean plantan ezarriko dira. Herriko merkatartza jarduerak, jarduera ekonomikoak eta interes gunek seinalatzen dituzte. Herrian ez zen halako planorik, eta, beraz, 2015ean procedura abiatu genuen, PTArekin batera eta osagarri. Laster, bide bazterrean, herriak bere gain hartu dituen lehen seinale-erregeletak agertuko dira.

OGO (Ondare Gune Ohargarriak, lehengo Arkitektura eta Ondarea balioan ezartzeko gunea)

Herrian ordu arte ez zen halakorik (THPri oposagarria den desmartxa da). Eraikiak izan

diren gune ohargarriei eta ondareari balioa emateko eta horiek babesteko balio du. EHEren eskumenean pasa da. Bi urteren buruan bururatu behar genuke.

Suteetarik Babesteko Eskema

Dokumentu honi esker, suteetarik babesteko herriaren azpiegiturak zein diren jakin daiteke, eta, hola, segurtasun arloan diren eskasiak bete daitezke. Suteetarik Babesteko Eskema sortu berri dugu eta gure oinarrizko dokumentu guzietan integratu dugu.

Hiri bideen araudia

Araudi horrek jabego publikoaren aldi bateko baliatzek eta herriko bideetan diren obrak kudeatzeko balio du. Besteek obren denboran bideetan egin gorabehera franko saihesteko balio du. Aitzineko dokumentua zaharkitua zen, ez zuelako arauen eta herriaren bilakaera kontuan hartzen. Badu zenbait hilabete araudi berria indarrean dela.

Uren Kudeaketaren Gida-Eskema

Dokumentu hau ez zen existitzen. 2014an idazten hasi ginen. Euri uren ondorioak jasaten dituzten toki minberak zehazteko eta hobetzeko balio du. Ezagutu ditugun gertakari latzek – azkena 2018ko uztailaren 16an (150 kaltetu) – dokumentu eta ekintza horiek beharrezkoak direla erakutsi digute.

Herriko Babes Zibileko Plana

Gerta daitezkeen arrisku natural, arrisku teknologiko edo osasun arrisku nagusiei buruz herriarrak informatzeko, abisatzeko, babesteko eta laguntzeko balio du. Auzapezak du plantan ezartzeko ardura. Herriko eragileak horren arabera antolatzen dira (hautetsiak, herriko langileak, laguntzaileak, enpresak eta abar), herrian gerta daitezkeen arrisku handien kasuan manera egokian erantzuteko. Uztaritzen, uholdeek eta ur jarriazzeek usu kaltetu herrian, ez genuen halako planik. Orain bai. 2018ko otsailaren 22an plantan ezarri genuen.

Accessibilité

Pour palier un manque de plusieurs années, nous avons installé un toilette automatique certifié PMR (Personne à Mobilité Réduite) et un point d'eau à côté des jeux de Guadalupea, endroit très fréquenté de la commune.

Pour poursuivre notre agenda d'accessibilité qui comprenait en 2018 cinq ERP (Etablissement Recevant du Public) une prochaine mise aux normes verra l'installation d'un équipement de même type sur le site de Lapurdi.

Nous allons lancer en ce début d'année une étude pour le PAVE (Plan de mise en Accessibilité de la Voierie et des Espaces publics) qui permettra de faire un diagnostic pour l'élaboration d'un agenda d'accessibilité programmé.

Irisgarritasuna

Urte anitzetako gabezia gainditze-ko, herrian jende anitz biltzen duen Guadalupea joko eremuan MMP (Mugikortasun Mugatuko Pertsona, fr. PMR) ziurtagiridun komun automatikoa eta iturri bat ezarri ditugu. 2018an bost PHE (Publikoa Hartzen duen Eraikina, fr. ERP) barne hartzen zituen gure irisgarritasunaren agendarekin jarraitzen, norman ezartze bati esker Lapurdi gunean gisa bereko muntadura bat ezarriko da laster.

Urte hastapen honetan BEIPerako (Bideen eta Eremu publikoen Irisgarritasunerako Plana, fr. PAVE) ikerketa abian emanen dugu, zeinak irisgarritasunerako agenda plantan ezartzea ahalbidetuko duen.

Travaux réalisés ces derniers mois



- Installation de sièges pour les spectateurs à la tribune du stade Etxepare.
- Etxepareako kirol eremuan, ikusleentzat jarlekuen ezartza.



- 3 nouveaux abris bus rue Hiribehere / • Hiribehereko karrikan, 3 autobus aterpe berriren ezartza.



- Stade Xopolo : Mise en place du guichet et barrières de sécurité pour canaliser les spectateurs. / • Xopoloko kirol eremua: Ikusleak bideratzeko txarteldegiaren eta segurtasun uhalen plantan ezartza.



- Nouvelle salle de sieste à l'école d'Arruntza. / • Arrantzako eskolan, etzanaldi-rako gela berriaren antolatzea.



- Implantation de toilettes automatiques à Guadalupea et place Lapurdi accessibles aux personnes en situation de handicap. / • Guadalupean eta Lapurdi plazan, elbarrituak errazki sartzen ahal diren komun automatikoen ezartzea.



- Mise en sécurité avec balises de ralentissement à Sokorondo, rue Jauregia (Bourg) et quartier Etxehasia (2). / • Sokorondo auzoan, Jauregia karrikan (plaza) eta Etxehasia auzoan (2), segurtasun neurrien hartzera, abiadura emekitze balizak ezarri



- Réfection complète de la rue Landalarre au quartier St Michel avec aménagement de sécurité et mise en place d'une zone 20km/h.
- San Mixel auzoan, Landalarreko karrikaren berritzea, segurtasun neurriak indartuz eta 20 km/h-eko gune bat plantan ezarri.

Azken hilabeteetan egin obrak



- Restauration complète du monument aux morts : nettoyage de la statue et des plaques, réfection des joints de la maçonnerie. / • **Hilen oroitariaren berritza:** estatuaren eta plaken garbitza, hargintzako junturen berritza.



- Clôture de sécurité autour des jeux pour tout petits à Lota. • Lotan, ttipiendako jokoek inguruan **segurtasun hesi baten ezartzea.**



- Mise en sécurité de l'accès au pont d'Arruntza par un passage piétons. • Arruntzako Zubirako sarbidean **segurtasun neurrien hartzea**, oinezkoen pasabide bat ezarri.



- Nouveaux jeux d'enfants dans les cours d'écoles de Arruntza et Idekia (Hiribehere). / • **Arruntzako eskolako eta Idekia eskolako (Hiribehere) jostalekuetan, haurrendako joko berrien ezartzea.**



- **Gaztelua :** Après la sécurisation et renforcement de la toiture cette année, 2019 verra la suite des travaux de sondages et la mise à nue des murs intérieurs pour analyse de la structure du bâti. / • **Gaztelua:** 2018an teila-tuan segurtasun neurriak hartzeta eta hori indartu ondoan, 2019an zundaketa obrekin segituko da eta barneko paretak biluztuko dira, eraikinaren egitura aztertzeko.



- Places de stationnements supplémentaires rue Hiribehere face à Guadalupea. / • Hiribehereko karrikan, Guadalupea parean, **aparkaleku gehiagoren ezartzea.**

COEUR DE QUARTIER D'HERAITZE : La réflexion continue !

La commune d'Uztaritze, en collaboration avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB), a décidé de mettre en place un périmètre d'étude sur le quartier d'Heraïtze. Ces réflexions se font en concertation avec le comité de quartier et autres acteurs du quartier.

Ce quartier qui s'est fortement urbanisé est au cœur de plusieurs enjeux :

- Nécessité de réorganiser l'espace public et de repenser la circulation
- Volonté de développer les équipements

publics avec notamment une réflexion sur la création d'une nouvelle école

- Volonté d'implanter des activités économiques

Pour permettre ces aménagements, une action foncière sera obligatoirement envisagée. Le périmètre d'étude qui a été défini va donner la possibilité à la commune d'avoir une vision à moyen et long terme de cet espace et contrôler strictement l'urbanisation sur le secteur, en attendant que le projet final aboutisse.



HERAITZE AUZO BIHOTZA: Hausnarketak segitzen du!

Rond-Point

Nous avions annoncé l'an dernier la réalisation d'un rond-point qui aurait été implanté au niveau des bretelles d'accès à la RD932 et au centre commercial Super U. Ce projet avait été étudié par les services du Conseil Départemental et avait pour but de sécuriser ce carrefour. Il avait été monté dans un esprit de partenariat et d'intérêts partagés entre un propriétaire privé qui cédait une emprise permettant un accès direct vers le parking du supermarché, le Conseil Départemental et la Commune, co-financeurs. Ces deux collectivités avaient inscrit les montants nécessaires dans leurs budgets 2018.

Malheureusement, le propriétaire privé s'est retiré de l'accord pendant l'été, rendant ce projet impossible puisqu'il nécessite l'emprise foncière de son terrain.

La commune regrette vivement ce revirement en souhaitant que nous puissions prochainement réactiver ce projet.

Biribilgunea

Iaz, RD932 errepidearen eta Super U merkataritza gunearren sarbideetan biribilgune bat eginen genuela jakinarazi genuen. Departamenduko Kontseilu Orokorreko zerbitzuak projektua ikertu zuten. Helburua zen bidegurutze horretan segurtasun neurri egokiak hartzea. Jabe pribatu batekin muntatu zen projektua, lankidetza izpirituan eta interes parte-katuaren izenean. Hala, jabe pribatuak Uztaritzeko herriari eta Kontseilu Orokorrari supermerkatuko aparkalekura zuzenean sartzeko bidea ematen zuen zortasun-eremu bat utzi zion. Bi erakundeek 2018ko aurrekontuetan horretarako beharrezkoak ziren finantzak aurreikusi zitzuzten.

Baina, zoritzarrez, udan, jabe pribatua akordiotik erretiratu zen. Orduan, projektua ez zen gehiago gauzatzen ahal, horretarako, bi erakundeak jabearen lurra jabe bilakatu behar baitziren.

Herriak jabearen iritzi aldaketa damu hartzan du eta espero du proiektu hau laster berriz abiatzen ahalko duela.

Uztaritzeko herriak, Euskal Hirigune Elkargoarekin (EHE) elkarlanean, Heraïtze auzoan ikerketa eremu bat plan-tan ezartzea erabaki du. Hausnarketa horiek auzo batzordearekin eta auzoko beste eragile batzuekin hitzarturik egiten ari dira.

Anitz urbanizatu den auzo horrek eronka bat baino gehiagori buru egin behar dio:

- Eremu publikoa berrantolatzeko eta zirkulazioa berriz pentsatzeko beharra
- Muntadura publikoak garatzeko borondatea, bereziki eskola berri baten sortzeari buruzko hausnarketarekin
- Aktibitate ekonomikoak finkatzeko borondatea

Hobekunza horiek ahalbidetzeko, lur erostea derrigorrez aurreikusi beharko da. Behinbetiko proiektua burura heldu artean, zehaztua izan den ikerketa eremuak epe ertain eta luzera espazio hori zaintzeko eta sektore horretako urbanizazioa zorrozki kontrolatzeko parada emanen dio herriari.

UZTAILAREN 16KO UHOLDEAK

Uztailaren 15etik 16rako gauean, herrian sekula ez bezalako euri erauntsiak izan ziren. Urak desmasia anitz egin zuen, jabe pribatuen eta herriaren ondasunak azkarki kaltetuz.

Herriko bideek partikularki makur anitz jasan zituzten. Bide anitz osoki moztuak edo larriki kaltetuak izan ziren. Uztailaren 16an, goizean goiz, herriko zerbitzuak karraskan ari izan ziren eta puntu anitzetan larrialdiko esku hartzeak egin zituzten. Garai gaizto hartan egin lanagatik eskertzen eta zoriontzen ditugu.

Estatuko zerbitzuek orduko aro gaiztoa natura hondamendi gisa sailkatu dute. Gainera, uholdeek herriko bideen zerbitzuaren lana nahasarazi eta gibelerazi dute, bideak konpontzen pasatu baitituzte zenbait aste. Gertakari horren ondorioz, konpontze, tindatze eta seinale ezartze lan anitz berantean dira. Uztaritzarrei beren gogo onaz eskerrak ematen dizkiegu.

INONDATIONS DU 16 JUILLET

Dans la nuit du 15 au 16 juillet, la commune a été frappée par des pluies d'une violence qu'elle n'avait jamais connue. De nombreux dégâts ont été occasionnés, tant chez des propriétaires privés, que sur des biens communaux.

Les voiries communales ont en particulier connu de très lourds dommages, avec plusieurs voiries totalement coupées ou supportant des dommages graves. Les services de la commune ont été à pied d'œuvre dès le matin du 16 et sont intervenus en urgence sur de très nombreux points. Ils sont à remercier et féliciter pour leur efficacité dans cette période difficile.

Ces intempéries ont été déclarées Catastrophe Naturelle par les services de l'Etat, et elles ont eu pour effet secondaire de perturber très fortement le planning des travaux du service voirie qui a dû pendant plusieurs semaines intervenir quasi-exclusivement sur leur réparation. De nombreux travaux de réfection, peinture, signalisation connaissent ainsi un retard induit, et nous remercions les uztaritzar de leur compréhension à cet égard.

URBANISME / HIRIGINTZA

BALAYEUSE

Le centre technique se dote de cet outil, indispensable pour améliorer la propreté des voies et trottoirs d'Uztaritz. La balayeuse a plusieurs fonctions : nettoyage de chaussées, des endroits inaccessibles et encombrés (regards) par système de ramassage, de désherbage mécanique, aspiration des feuilles, kit de lavage haute pression. Elle améliorera les conditions de travail des agents de la voirie qui auront plus de temps pour assumer d'autres tâches importantes au bien-être et la sécurité des Uztaritzar: peintures, curage des fossés, etc..

Le choix d'une balayeuse à moteur essence a été fait pour garantir un environnement propre pour les agents utilisateurs et les riverains.

Elle sera livrée aux environs de mi-mars. Cette acquisition majeure pour notre service voirie s'accompagnera également du recrutement d'un agent spécialisé qui renforcera l'équipe qui entretient nos voiries et abords.

KARRIKA GARBIGAILUA

Zentro teknikoak tresna berria du, Uztaritzeko bideak eta espaloia garbi atxikitzeo behar-beharrezko: karrika garbigailua. Hara zertako baliatzen den: bideak garbitzeko, ezin hurbildu eta tapatu (isurbideetako begiak) lekuak bilketa sistemarekin garbitzeko, belar tzarrak mekanikoki kentzeko, hostoak xurgatzeko, presio altuko garbiketa egiteko. Bideetako langileen lan baldintzak aise hobetuko ditu. Hala, uztaritzarren ongizatea eta segurtasuna bermatzeko beste zeregin importanteentzat denbora libratuko dute: tindu lanak, arroilen garbitzea...

Ezantzazko motorra duen karrika garbigailua hautatu da, langile erabiltaileentzat eta tokiko bizitzaleentzat ingurumen garbia segurtatzeko.

Tresna martxo erditsutan iritsiko da. Bideetako zerbitzuarentzat erosketa importantea da. Gainera, langile berezitu bat kontratatuko da, bideak eta inguruak garbitzen dituen taldea indartzeko.



Festival UZTA HITZAN : cinquième édition

UZTA HITZAN festibalaren 5. edizioa



Ce festival est né en 2014 à l'initiative de la mairie d'Uztaritze. Il est un des événements importants de la commune en faveur de l'euskara et s'est déroulé cette année du 23 novembre au 2 décembre aux mêmes dates qu'Euskaraldia projet visant à accroître la pratique quotidienne de la langue basque.

Cette année aussi le programme était riche et varié.

- 3 conférences ont été proposées : une de Juan Martin Elexpuru sur les fouilles archéologiques à Irune-Velaia , une de Maité Déliaert de l'Institut Culturel Basque sur «les chants et la culture basque dans les camps de prisonniers allemands» et la dernière de Enaut Etxamendy, Dominique et Fina Davant et Roger Courtois sur l'origine de la langue basque.
- Du théâtre avec le spectacle Behin Bazen Internet et la dernière représentation de Jendeak par la troupe Ildoka (9 récits tirés du livre de Daniel Landart).
- Les enfants n'ont pas été oubliés et sont venus en nombre voir le spectacle de Philippe Albor et Mayalen Alfaro « Izarren Hautsa » (création autour de l'œuvre de Mikel LABOA) et la semaine suivante ont pu écouter à la médiathèque des contes en euskara.
- Le documentaire TXOKOLATEA a été présenté à Ikas en présence du chocolatier de Tolosa Rafa Gorrotxategi et a été suivi d'une dégustation de chocolat chaud accompagné de petits gâteaux, un très bon moment apprécié de tous.

Une nouveauté cette année avec Mintza Plaza en collaboration avec AEK : autour d'un café, l'occasion a été donnée à un public qui apprend ou parle l'Euskara de pratiquer et de passer un moment convivial. Afin de faciliter les échanges, 4 personnes ont présenté différents thèmes issus de leurs propres expériences (théâtre, contes, cavalcade et journal).

Un grand merci à toutes les associations qui ont participé à ce festival (Zortziko, AEK, IKAS, ICB) ainsi qu'à tous les participants.

Festibala 2014n sortu zen, Uztaritzeko Herriko Etxearren ekinmezez. Euskararen aldeko herriko gertakari nagusietarik bat da. Azaroaren 23tik abenduaren 2ra iragan zen, euskararen eguneroko praktika emendatzeko xedea zuen Euskaraldia proiektuaren egun beretan.

Bosgarren edizio hartan, egitarau aberatsa eta anitza bazeen.

- 3 mintzaldi proposatuak ziren: Juan Martin Elexpuru-kin Iruñea-Veleiako indusketei buruzkoa, EKEko Maite Deliarte-kin Euskal kantu eta kultura, alemanen preso kanpamenduetan gaiairi buruzkoa eta Enaut Etxamendy, Dominique eta Fina Davant eta Roger Courtois-rekin euskararen jatorriari buruzkoa.
- Antzerkia, Behin Bazen Internet ikuskizunarekin eta Daniel Landart-en liburutik jalgi 9 kontakizuneko Ildoka konpainiaren Jendeak ikuskizunaren azken emanaldia-rekin.
- Haurrak ez genituen ahantzi eta nonbre handian jin ziren Philippe Albor eta Maialen Alfaroren Izarren Hautsa ikuskizuna ikustera (Mikel Laboaren obraren inguruko sorkuntza). Ondoko astean, mediatekan, ipuinak euskaraz entzun ahal zitzuten ere.
- Ikas-ek Txokolatea dokumentala aurkeztu zuen. Tolsako Rafa Gorrotxategi txokolategilea hor zen. Ondotik, jendeak txokolate beroa edan eta bixkotxak jan ahal izan zituen. Denek memento goxo bat pasa zuten.

Aurtengo berritasuna, AEKrekin antolatu Mintza Plaza izan zen: kafe baten inguruan, euskara ikasten ari den edo mintzatzen duen jendeak memento goxo bat pasatzeko parada izan zuen. Solasak errazteko, 4 pertsonek beren bizipenetatik jalgi gai batzuk aurkeztu zitzuten (antzerkia, ipuinak, kabalkada eta egunkaria).

Festibalean parte hartu duten elkartea (Zortziko, AEK, IKAS, EKE) eta jende guzieri, milesker!

Contrat de progrès 2016-2021 de la commune

Ce contrat de progrès, voté en conseil municipal en décembre 2015, permet d'accompagner la commune dans l'intégration progressive de l'euskara dans les services jusqu'à ce qu'elle puisse fonctionner de manière bilingue et autonome. Ainsi, les Uztaritar auront accès à des services bilangues et auront la possibilité d'utiliser l'euskara à l'échelle du bassin de vie.

Ce contrat de progrès, prévoit notamment d'envoyer chaque année des agents en formation. Pour cette année 2019, 7 agents sont concernés : 4 poursuivent leur formation et 3 la débutent.

Nous les félicitons pour leur implication.

Herriaren 2016-2021eko hobekuntza kontratua

Hobekuntza kontratua 2015eko abenduko herri biltzarran onartu zen. Langunza ekartzen du herriak lehenik zerbitzuetan euskara sar dezana, eta gero manera elebidun eta autonoma funtziona dezana. Hola, uztariztarrek zerbitzu elebidunak izanen dituzte eta bizi eremuan euskara baliatzen ahalko dute.

Hobekuntza kontratuak aurreikusten du urtero langile batzuek euskara formakuntza egiten dutela. 2019an, 7 langilek euskara ikasiko dute: 4 langilek formakuntza segituko dute eta 3 langilek formakuntza hasiko dute.

Erakusten duten gogoagatik txalotzen ditugu.

Etablissement Public Foncier Local

L'EPFL (Etablissement public foncier local) a acheté pour le compte de la commune la maison Arditeya dans le centre d'Heraitze, la commune rembourse un prêt sur un portage qui prendra fin en juin 2020, date à laquelle elle en sera propriétaire.

Le jeudi 29 novembre 2018, l'EPFL a organisé une visite de cette habitation en présence d'un élu municipal, du responsable du CTM (Centre Technique Municipal), d'un représentant des associations Atherbea (logements d'urgence) et Etorkinekin (hébergements de migrants). En effet conjointement à la demande de la commune, l'EPFL a souhaité que pendant la durée du portage, cette habitation ne se détériore pas en restant inoccupée.

L'EPFL envisage donc après quelques travaux de rafraîchissement de signer des conventions avec ces associations (Atherbea et Etorkinekin) pour qu'elles puissent mettre ces 2 logements à la disposition de leur public.

Ces accueils pourraient se faire dans le courant du mois de janvier 2019.

LABURRA / BREVE

Lurren Tokiko Erakunde Publikoak

Lurren Tokiko Erakunde Publikoak (EPFL) herriaren izenean Arditeya etxea erosi du, Heraitze erdian. Herria egokitzapen mailegua ordaintzen ari da. 2020ko ekainean bururatuko da, eta, orduan, etxearen jabe izanen da.

2018ko azaroaren 29an, ostegunarekin, Lurren Tokiko Erakunde Publikoak etxe horren bisita antolatu zuen. Herriko hautetsi bat, herriko zentro teknikoko arduraduna, Atherbea elkarteko ordezkari bat (larrialdiko aloimenduak) eta Etorkinekin elkarteko ordezkari bat (etorkinen aloimendua) izan ziren. Izen ere, herriarekin batean EPFLek ere nahiago du egokitzapen denboran etxea ez andeatzea eta beraz hutsik ez egotea.

Ondorioz, etxearen erreberritze lan batzuen ondotik, EPFLek pentsatzen du elkarrekin hitzarmen bat izenpetzea (Atherbea eta Etorkinekin). Hala, elkarrekeek etxeko bi bizitegiak beren egoiliarren esku ezartzen ahalko dituzte.

Egoiliarrak 2019ko urtarrilean errezipitzen ahalko dituzte.

Contrat Enfance Jeunesse

Le renouvellement du Contrat Enfance Jeunesse (CEJ) « pôle territorial Errobi » dans lequel sont engagées avec Uztaritze, les communes d'Halsou, Jatxou et Larressore a été adopté à l'unanimité lors du conseil municipal du jeudi 29 novembre.

La Commune souhaite maintenir et garantir un service de qualité à la population en préservant les financements issus de la Caisse Nationale des Allocations Familiales par la prestation de service du Contrat Enfance Jeunesse et avec la participation des communes signataires.

Le principe général de ce dispositif est défini dans un contrat d'objectifs et de cofinancement entre la commune et la CAF autour de deux objectifs principaux :

- Favoriser le développement et optimiser l'offre d'accueil.
- Contribuer à l'épanouissement des enfants et des jeunes et à leur intégration dans la société par des actions favorisant l'apprentissage de la vie sociale et la responsabilisation pour les plus grands.

Ce contrat concerne: le centre de Loisirs Eki Begia, l'espace jeunes UZT'Ados, les accueils périscolaires, la coordination, l'ingénierie et l'accueil de Loisirs Uda Leku.

Haurtzaro Gaztaro Kontratua

2018ko azaroaren 29ko herriko kontseiluan, hautetsiek aho batez « Errobi lurrarde eremuko » Haurtzaroa Gaztaroa Kontratuaren arraberritzea onartu zuten. Uztaritzeko herriaz gain, Haltsuko, Jatsuko eta Larresoroko herriak ere horren parte dira.

Uztaritzeko herriak herritarrei kalitatezko zerbitzua eman nahi die, eta, horretarako, familiien lagunza kutxatik jalgi finantzamenduak eta zehazki Haurtzaroa Gaztaroa Kontratua zerbitzua atxiki nahi ditu, horren sinatziale diren herrien parte hartzeaz gain.

Baliabide horren printzipio orokorra herriaren eta familiien lagunza kutxaren artean adostu helburu eta finantzaketa kontratu batean zehaztua da, bi ardatz nagusiren inguruan:

- Garapena sustatzea eta harriera eskaintza hobetzea.
- Haurren eta gazteen lorategian parte hartzea eta horiek jendartean ontsa integratzeko lanean parte hartzea, bizi sozialaren ikasketa errazten eta handienei erantzukizunak ematen dizkieten ekintzak antolatzu.

Kontratua egitura horiei zuentzen zaie: Eki Begia aisiaaldi zentroari, UZT'Ados gazte guneari, eskolaldi inguruko harrerei, koordinazioari, ingeniaritzari eta Uda Leku aisiaaldi zentroari.



3 eskola publikoak urteroko materialaz hornitzea

Hiru eskola publikoek adierazi inbestimendu galdeei ahal bezain ontsa ihardesten entseatzen da herria. Hala, ikasturte hastapenean, eskolak hortaz dohatu ditugu:

- **Idekia eskola:** ttipiendako joko estruktura berri bat eta kanpoko materiala - alkiak, mahaiak eta barazki ontziak.
- **Heraitzeko eskola:** ikasgela batean muble berriak (mahaiak eta kadirak) eta 10 tauleta numeriko.
- **Arruntzako eskola:** ikasgela batean muble berriak (mahaiak eta kadirak) eta 5 ordenagailu eramangarri.

Dotation annuelle en matériel des 3 écoles publiques

La commune s'engage à répondre au mieux aux demandes d'investissement formulées par les 3 écoles publiques. Ainsi, pour cette rentrée scolaire, elles ont été dotées pour :

- **l'école Idekia :** d'une nouvelle structure de jeux pour les petits et de matériel extérieur : bancs, tables et bacs potager.
- **l'école d'Heraitze :** du renouvellement du mobilier d'une classe (tables et chaises) et de 10 tablettes numériques.
- **l'école d'Arruntza :** du renouvellement du mobilier d'une classe (tables et chaises) et de 5 ordinateurs portables.

Modification du mode de facturation du service de restauration scolaire

Lors du conseil municipal du 29 novembre, le nouveau mode de facturation du service de restauration scolaire a été adopté à l'unanimité

Mise en place depuis 2011, la facturation mensuelle se faisait jusqu'alors sur la base d'un forfait lissé sur 10 mois avec une régularisation en fin d'année. Le surcroît de travail considérable pour les services communaux et pour le Trésor Public, avec l'augmentation de la fréquentation de ce service, et l'insatisfaction de la part des usagers, nous ont amené à modifier ce dispositif. Nous avons donc opté pour une formule différente. Ainsi, à compter du 1er janvier 2019, la facturation mensuelle sera basée sur le nombre de repas effectivement commandé par les usagers sur la période concernée.

Eskola jantegiko zerbitzua fakturatzeko moldearen aldaketa

2018ko azaroaren 29ko herriko kontseiluan, hautetsiek aho batez eskola jantegiko zerbitzua fakturatzeko moldearen aldaketa onartu zuten

2011z gerotzik hilabeteko fakturatzea plantan ezarri zen, 10 hilabetetan leundi eta ikasturte bukaeran erregularizatu prezio finko batean oinarriturik. Baino, procedura honek zerbitzuetan eta Altxor Publikoan lan emendatze handia eragiten zuen – zerbitzu honen erabilpenaren emendatzearekin – eta erabiltzaileen ez ulertzea eta asegabetsun argia eragiten zituen. Ondorioz, beste formula baten alde egin dugu. Hala, 2019ko urtarilaren 1etik goiti, hilabeteko faktura erabiltzaileek egiazki manatu apairuetan oinarrituko da, fakturari dagokion epean.

Médiathèque

La hausse de fréquentation et l'augmentation du nombre d'inscriptions observées ces derniers mois confirment le dynamisme de l'équipe en place dans l'accueil du public et dans les animations proposées. En effet, les animations tant à l'adresse des plus petits accueillis en crèches ou chez des assistantes familiales, que des enfants des écoles et des adultes, rencontrent un succès croissant. De même, l'équipe de la médiathèque qui s'inscrit dans le programme des événements culturels de la commune, propose des activités publiques spécifiques comme récemment dans le cadre du festival Uzta Hitzan.



Mediateka

